




Afiliazioak beste errekor bat ezarri du urte amaieran

Gizarte Segurantzako afiliazioa Urte bakoitzeko abendua. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Abenduan, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,1 gehitu zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, serie historikoan beste marka bat ezarri du, 1.024.500 afiliazioko errejistrora iritsi ondoren. Azken hilabeteetan gertatu den bezala, emakumeek (%1,3) gizonak (%1,0) baino partehartze handiagoa izan dute bilakaera horretan.

Langabezia erregistratua %0,4 jaitsi zen abenduan

Langabezia erregistratua Urte bakoitzeko abendua. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabeziak beheranzko joerarekin jarraitu zuen, eta abenduan %4 murriztu zen urte arteko tasan. Balio absolutuetan, langabeen kopurua 107.380 izan zen, hau da, 2008tik abendu batean lortutako erregistrorik txikiena. Bilakaera hori gizonen (-%0,7) eta emakumeen (-%0,8) portaera onaren ondorio izan zen.



Europako langabezia tasa %6,3an kokatu da

Euroguneko langabezia tasa
Ehunekoa




Iturria: Eurostat.

Azaroan, euroaren eremuko langabezia tasa %6,3an kokatu zen, aurreko hileko emaitza berdinduz.

Hala, azken hilabeteetako beheranzko joera berretsi da, eta serie historiko osoko tasarik baxuenean jarraitzen du, joan den abuztuan lortu zena.

EAEko industriaren ekoizpena berriz gutxitu da

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko azaroa. Indizea



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu berri duen informazioaren arabera, **EAEko industria ekoizpena %1,6 murriztu zen azaroan, aurreko urteko aldi bera-
ren aldean.** Jaitsiera horretan indizearen osagai guztiek parte hartu zuten, energiak izan ezik, eta behe-
rakadak kontsumo ondasunek izan zuten %0,8tik ekipamendurako ondasunen %2,8ra bitartekoak izan ziren.